

## BASES DE LA CONVOCATORIA ANUAL DE EXPOSICIONES COLECTIVAS

El Área de Cultura del Ayuntamiento de Leioa, con el fin de organizar la programación de muestras y exposiciones colectivas durante la temporada **2010**, ofrece a los/as creadores/as la oportunidad de mostrar su producción artística en la Sala de Exposiciones de Kultur Leioa, con arreglo a las siguientes

### BASES

1. Podrán concurrir todos/as los/as artistas, manifestándose especial interés por la participación de vecinos/as de Leioa y jóvenes creadores/as (hasta 30 años).

La inscripción se realizará cumplimentando la ficha anexa a las bases, que se remitirá, junto con la documentación que se indica en la base tercera, a Kultur Leioa (Plaza Jose Ramon Aketxe, 11-4ª planta), indicándose claramente en el sobre "Convocatoria anual de exposiciones colectivas 2010". En todo caso se podrá utilizar cualquiera de los medios de presentación o envío autorizados por la Ley de Procedimiento Administrativo. **El plazo de inscripción finalizará el 31 de marzo de 2010.**

2. Se incluyen las siguientes propuestas artísticas: **pintura, escultura, fotografía y otras técnicas artísticas que puedan resultar de interés.** Tanto la técnica como los materiales utilizados son de libre elección por los artistas. La producción artística debe ser posterior al 1 de enero de 2005.

3. Cada autor/a adjuntará a la ficha de inscripción la siguiente documentación:

- Fotocopia del DNI o pasaporte.
- En el caso de vecinos/as de Leioa, certificado de empadronamiento.
- Curriculum vitae
- Ficha técnica de las obras: fotografía, título, año de realización, materiales, medidas y aquellos datos que se consideren de interés.

Es aconsejable que en la obra cuyo soporte sea la fotografía se presenten reproducciones en B/N o color, indicando el formato definitivo en el que se mostrarán en la exposición.

Así mismo **los/as artistas deberán tener en cuenta las características de la sala** a la hora de presentar sus propuestas, para lo cual se pondrá a su disposición la ficha técnica de la sala.

4. Los dossiers recibidos permanecerán en posesión de Kultur Leioa, que procederá a su devolución en caso de que la propuesta no haya sido seleccionada.

5. La **selección** de los/as expositores, así como del número de obras a exponer, se realizará bajo el **asesoramiento de una Comisión** nombrada al efecto, atendiendo fundamentalmente a la calidad de la obra presentada. La decisión de la Comisión será inapelable.

6. Los/as artistas seleccionados/as recibirán comunicación por escrito de las fechas para exponer su obra, debiendo ser ésta presentada en perfecto estado y en las condiciones necesarias para su montaje y contemplación.

7. Kultur Leioa **realizará un catálogo** de las obras seleccionadas para la exposición colectiva.

8. El Ayuntamiento de Leioa, si la Comisión de asesoramiento así lo estima, organizará una **exposición colectiva** con los artistas **seleccionados por la Comisión para la temporada 2010**, aplicándose la



Normativa para uso de las Salas de Exposiciones aprobada por este Ayuntamiento, de la que se facilitará copia a todos/as los/as participantes.

Aquellos/as artistas que no estén de acuerdo con dicha Normativa podrán renunciar a la exposición de su obra.

Asimismo, este Ayuntamiento se encargará de asegurar las obras durante el período de exposición.

9. Las obras expuestas podrán ser adquiridas por entidades o particulares que lo deseen. La venta será realizada directamente por el/la autor/a.

10. Por otra parte, atendiendo al criterio de la Comisión, el Ayuntamiento de Leioa podrá seleccionar una de las propuestas presentadas para realizar una exposición individual. En este caso, se aplicará la Normativa para uso de las Salas de Exposiciones aprobada por este Ayuntamiento, de la que se facilitará copia al /a la interesado/a, y se regirá por las condiciones estipuladas para las exposiciones individuales.

11. La participación en esta Convocatoria supone la aceptación total de estas bases.

En Leioa a 14 de diciembre de 2009.

## TALDEKAKO ERAKUSKETETARAKO URTEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

Leioako Udaleko Kultura Sailak aukera ematen die sortzaileei euren arte-ekoizpena erakusteko Kultur Leioa Erakusketa Aretoan, **2010**eko ekitaldian taldekako erakusketen egitaraua antolatzeko helburuarekin. Hona hemen oinarriak:

### OINARRIAK

1. Artista guztiek parte hartu ahal izango dute, eta interes berezia dago Leioan bizi direnek eta sortzaile gazteek (30 urtera artekoek) parte hartzeko.

Izena emateko oinarriari erantsitako fitxa bete behar da eta, fitxa hori, hirugarren oinarrian adierazitako agiriekin batera, Kultur Leioara (Jose Ramon Aketxe plaza, 11 - 4. solairua) bidali. Gutunazalean hau jarri behar da: "Taldekako erakusketetarako urteko deialdia". Edonola ere, Administrazio Prozeduraren Legeak baimendutako edozein bide erabili ahal izango da fitxa eta agiriak aurkeztu edo bidaltzeko. **Izena emateko epea 2010eko martxoaren 31n amaituko da.**

2. Arte-proposamen hauek sartzen dira: **pintura, eskultura, argazkigintza eta interesgarriak izan daitezkeen beste arte-teknika batzuk**. Erabilitako teknika eta materialak artistek aukeratuko dituzte. Arte-ekoizpenak 2005eko urtarrilaren 1a baino geroagokoa izan behar du.

3. Egile bakoitzak agiri hauek erantsiko dizkio izena emateko fitxari:

- NANaren edo pasaportearen fotokopia.
- Leioan bizi bada, erroldatze-ziurtagiria.
- Curriculum vitae.
- Lanen fitxa teknikoa: argazkia, izenburua, zein urtetan egin den, materialak, neurriak eta interesgarritzat jotzen diren beste datu batzuk.

Argazki-euskarria duten lanetan, gomendatzen da erreproduzioak aurkeztea zuri-beltzean edo koloretan, erakusketan erabiliko den behin betiko formatua ere adieraziz.

Era berean, **artistek aretoaren ezaugarriak kontuan hartu beharko dituzte** euren proposamenak aurkezterakoan. Horretarako, aretoaren fitxa teknikoa emango zaie.

4. Jasotako dossierak Kultur Leioak edukiko ditu eta, proposamena aukeratu ez bada, itzuli egingo ditu.

5. Erakusketariak **aukeratu** eta zenbat lan erakutsiko dituzten erabakitzea, berariaz horretarako eraturako **batzorde batek aholkatuta** egingo da eta, funtsean, aurkeztutako lanaren kalitatea hartuko da aintzat. Batzordearen erabakia apelaezina izango da.

6. Aukeratutako artistei idatziz jakinaraziko zaie noiz erakutsi behar duten euren lana. Lan hori egoera ezin hobean eta muntatzeko eta ikusteko beharrezko baldintzetan aurkeztu behar da.

7. Kultur Leioak taldekako erakusketarako aukeratutako lanen **katalogo bat egingo du**.

8. Leioako Udalak, aholkularitza-batzordeak oniritzia ematen badu, **taldekako erakusketa** bat antolatuko du **batzordeak 2010eko ekitaldirako aukeratutako artistekin**. Horretarako, udal honek onetsitako Erakusketa Aretoak erabiltzeko Arautegia aplikatuko da. Arautegi horren kopia emango zaie parte-hartzaile guztiei.

Aipatutako arautegiarekin ados ez dauden artistek uko egin ahal izango diote euren lana erakusteari.

Era berean, udal honen ardura izango da lanak aseguratzea erakusketa-aldian.

9. Erakundeek edo partikularrek erosi ahal izango dituzte erakutsitako lanak. Lanaren egileak egingo du salmenta, zuzenean.

10. Bestalde, batzordearen irizpidea oinarri hartuta, Leioako Udalak aurkeztu diren proposamenetarikoa bat aukeratu ahal izango du, banakako erakusketa bat egiteko. Kasu horretan, udal honek onetsitako Erakusketa Aretok erabiltzeko Arautegia aplikatuko da, eta arautegi horren kopia emango zaio interesdunari. Horrez gain, banakako erakusketetarako ezarritako baldintzek arautuko dute.

11. Deialdi honetan parte hartzeko, oinarri hauek guztiak onartu behar dira.

Leioan, 2009ko abenduaren 14an.